

ETOLEKO KIDE LANGABEENTZAKO DESKONTUA EGITEKO ESKAERA

2013ko azaroaren 9an Gasteizen egindako ETOLEren Elkargokideen Batzarrean, langabezian daudela-eta egoera hori ziurtatzen duten eta eskatzen duten elkargokideei kuotaren %30eko deskontua egingo zaie.

Deskontu hori jaso ahal izateko baldintzak honako hauek dira:

- **Sinatutako eskaera** eta eskatzailea **langabezian dagoela ziurtatzen duen agiria** (Lanbideren **Inskripzio aldien txostena**) bidali beharko dira diruzaintzaren helbide elektronikora (etolediruzaina@terapeutas-ocupacionales.es) **kuotak igortzen hasi baino 5 egun lehenago**. Data hori kuota-igorketak gogorarazteko idazkaritzatik seihileko hasieran bidaltzen zaizuen mezu elektronikoan agertzen da.

*Inskripzio aldien txostena www.lanbide.net weborrian, nire lanbidenet-en sartuta, ziurtagirien erlaitzean sakatuta lor dezakezue.

- Alta emateko orduan urteko ordainketa aukeratu zuten elkargokideek zatikakora aldatu beharko dute, deskontua seihileko bakoitzeko kuotan aplikatzen baita.

Zalantzarik baduzue, idazkaritzakoak zein diruzaintzakoak egin nahi duzuen edozein kontsulta argituko dizuegu.

ETOLEren Gobernu Batzordea



ETOLEKO KIDE LANGABEENTZAKO DESKONTUA ESKATZEKO INPRIMAKIA

Nik, _____ ,
NAN _____ eta ETOLE, Euskadiko Terapeuta Okupazionalen Elkargoko
_____ zenbakidunak, langabezian nagoela-eta kuotaren zenbatekoaren %30eko
deskontua eskatzen dut. Horregatik, eskaera honekin batera doa langabezian nagoela
ziurtatzen duen agiria, Lanbidek emana.

SINADURA:

ESKAERA DATA: ____/____/____